

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: *Geurien be bai* egitasmoa kudeatzeko zerbitzu kontratua, publikitateagazko prozedura negoziatu bidezko esleipena. 2017 eta 2018. urteak.

Espediente zenbakia: Euskara Sailaren 82-1 espedientea

GEURIEN BE BAI EGITASMOA KUDEATZEKO
ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK
PUBLIZITATEAGAZKO PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZKO ESLEIPENA

1. Xedea:

Geurien be bai egitasmoa kudeatzeko zerbitzua ematea.

2. Egitasmoaren justifikazioa:

Geurien be bai egitasmoaren bidez, Bermeoko arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzeko lanean ari gara 2004. urteaz geroztik, udalerriko eragile ugariarekin bideratu den elkarlanari esker, hainbat proiektu, kanpaina eta sentiberatzeko ekintza bideratu dira eta lan emankorra egiten ari dela ondorioztatu da urte hauetan guztietan.

Hasierako urteetan indarrak enpresa alorrean eta elkarteetan jarri baziren ere, eskarmentuak erakutsi digu lan-arloak hobeto egokitzen eta lehentasunak zorrozten, gaur egun egitasmoak daukan dimentsioa izan arte.

Udalerrriaren motorra diren hainbat arlotan ari gara lanean euskara zabaltzeko: enpresetan, merkataritza eta ostalaritzan, kirolean, kultur arloko elkarteetan, giza-alorreko elkarteetan.

2013-2017 aldiko Euskararen Plan Estrategikoarekin bat etorri lan egiten ari gara egitasmo honen bidez, beste eragin-esparru batzuekin bideratu da elkarlana eta horrela, euskaldungoaren aktibatze lana izan da urte hauetako lehentasuna, eragile batzuekin bereziki, gazteekin, gurasoekin, era guztietako elkarteekin.

Horrekin batera, urte hauetan guztietan euskara sustatzeko lanetan ari diren eragile guztien bilgunea osotzea, trinkotzea eta saretzea izango da beste egiteko handi bat, izan ere, euskarak aurrera egingo badu eta etorkizuneko hizkuntza sendoa izango bada bermeotarrentzat, gizartea osotzen duten eragile guztien parte hartze aktiboa ezinbestekoa da, eta udalari dagokio bere esku dagoena, hau da, tresnak eta bideak zabaltzea eta eragile guztiei bidea egiten laguntzea.

Geurien be bai egitasmoaren bidez, 2013-2017 aldirako Plan Estrategikoaren helburu orokorra lortzeko zehaztu diren bost lan ildoekin bat datorren lan-proposamena landu nahi da, eta era berean, 2017. urtean diseinatuko den hurrengo aldirako Plan Estrategikoarekin bat etorri, egitasmoa moldatzeko prestutasuna izango dute lizitazioan parte hartu nahi duten hizkuntza-aholkularitzek.



2. Helburuak:

- *Geurien be bai* egitasmoak lantzen dituen arloetan hizkuntza-liderrekin lan egin, euren eragina indartu eta jokaera saritu.
- *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten eragileen hizkuntza-kontzientzia indartu, transmisioa indartzeko eta euskara lehenesteko estrategiak landu.
- Arlo sozio-ekonomikoan ari diren eragileekin elkarlanean jardun euren lan arloan euskararen presentzia handitzeko.
- Kirol arloko eragileekin batera, euskararen presentzia handitzeko estrategiak landu.
- Euskararen balioa eta prestigioa indartzeko eta euskararen aldeko sentimendua zabaltzeko estrategiak garatu, bermeotarren zeinu legez euskara zabaltzeko neurriak landu.
- *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten eragileei baliabideak eskaini euskara erabil dezaten laguntzeko.
- Euskararen Aholku Batzordeak biltzen dituen eragileekin elkarlana bideratu.

3. Lanaren ezaugarriak:

- Laguntza eta aholkularitza teknikoa emango du enpresa adjudikatariak, eta arlo sozio-ekonomikoan, elkarteetan eta kirol alorrean esku-hartzeko urteko kudeaketa plana prestatuko du eta horixe izango da lanaren gida nagusia.
- Lan planifikatua egingo da, beraz, eta pausuak aurreratu ahala, ebaluatu egingo da, hurrengo lanak eta pausuak zehaztu ahal izateko. Urte amaieran, egindako lanen memoria aurkeztuko da.
- Sentiberatze ekintzak planifikatu eta landu beharko ditu enpresa adjukidatariak eta eragileekin egingo diren bilera aurretiko prestaketa eta bileretako dinamizazio lana egingo du, beti ere, Euskara Sailarekin koordinatuta.
- Enpresa aholkulariak Udalaren Euskara Sailaren ardurapean eta Bermeoko Euskararen Aholku Batzordearen gomendioak gogoan lan egingo du. Horretarako Batzorde Teknikoa eta Jarraipen Batzordean aritu beharko du *Geurien be bai*-ko teknikariak.



4. Aukeraketa irizpideak:

A. Proposamen teknikoak (45 puntu)

- Egitasmoaren helburuei egokitutako proposamena: baldintza teknikoetan zehaztutako helburuak eskuratzeko kudeaketa-plan osotua aurkeztea.
- Proposatzen den lan metodologia: baldintza teknikoetan zehaztutako lanak nola bideratuko diren modu koherente batean azaltzea.
- Egitasmoa ebaluatzeko modua: ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak eta tresnak azaltzea.

B. Hobekuntzak (20 puntu)

- Bi pertsonetako lantaldea arituko da (10 puntu)
- Lantaldea hilean behin batzartuko da Euskara Saileko arduradunekin Udaletxean (5 puntu)
- Lantaldea prest egongo da herritarrekin bilerak egiteko Euskara Sailak eskatzen duen bakoitzean (5 puntu)

Hobekuntza betetzen denean puntuazio osoa emango da, eta betetzen ez denean, 0 puntu zenbatuko dira.

C. Proiektua burutzeko aurkeztutako proposamen ekonomikoa. (35 puntu)

Puntuazio gehiena eskaintza merkeena aurkezten duenari emango zaio eta beste proposamenei, hiruko erregela erabilita jarriko zaie.

Gehieneko puntuazioa: 100 Puntu

5. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Zerbitzu osoa egiteko epea hau da: hamabi hilabete, beste horrenbeste luzatzeko aukerarekin, kontratua sinatu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita.

Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

6. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa, 31.600 eurokoa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 8.400 eurokoa da. Guztira: 40.000 euro. (Luzapena barne, prezioa hauxe da: 63.200 euro, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa, 16.800 euro. Guztira, 80.000 euro).

